

Funtsezko jarduerak

Gure enpresa jende askorengana helaraziko duten marketing teknikak ditugu. Honako hauek dira;

Hasteko ziurtatuko dugu jendeak erraz uler dezakeela Planetek zer eskaintzen duen eta zergatik aukeratu behar duten, azalduko dugu sare sozialetan eta webgunean zergatik den alokatzea oso ona pertsonentzat eta planetarentzat, jendea konbentzitzen aukerarik onena dela. Planetek ingurumena zaintzen duela eta material atseginak erabiltzen ditugula hitz egingo dugu. Ontzi bereziak erabiltzen baditugu, bezeroei nola birziklatu dezaketen erakutsiko diegu. Sare sozialetan jarraitzaile asko dituen jendearengana helduko gara eta Planet buruz hitz egiteko eskatuko diegu. Ere bai, bezeroei iritziak idazteko edo Planeteko gauzak erabiliz esperientzia kontatzeko eskatuko diegu. Eta garrantzitsuena, bezeroak berezi sentiarazten ditugu eta eskerrak ematen dizkiegu Planet aukeratzeagatik.

Nolakoa izango da gure webgunea?

Hasieran webgune bat izango dugu, baina gure negozioa ondo joaten bada eta hazten bada, aplikazio bat sortuko dugu.

Hasierako orria : Planeteren misioa eta bere balioak argi eta garbi aurkeztuko ditugu. Nabigazioa erraza izango da, nabigaziorako menuak ulertzeko errazak izango ditu.

Katalogoa: Deskribapen argiak eta kalitate handiko argazkiak. Erabiltzaileek euren beharrak edo egin nahi dituzten ekitaldiak jartzeko aukera emango diegu.

Alokairu-prozesua: Alokairu prozesu sinplea urrats argiekin. Erabiltzaileek produktuen erabilgarritasuna ikusteko egutegia.

Tailerrak: Birziklapenari eta konponketari buruzko baliabideak dituen hezkuntza-atala. Tailer birtualetan sartzeko aukera konpontzen edo birziklatzen ikasteko.

GKEekin lan egitea: Planetek nola lan egiten du erakundekin eta erabiltzaileek nola lagundu dezaketen informazioa. Jendea boluntariadoak egiteko aukera.

Iritziak: Eman erabiltzaileei produktuei eta esperientzia orokorrari buruzko iruzkinak eta iritziak uzteko.

Segurtasuna eta pribatutasuna: Erabiltzaileen datuak nola kudeatzen eta babesten diren azaltzen duen atal argia.

Diseinu Erakargarria: Planeteren nortasuna erakusten duen diseinu erakargarri eta modernoa.

Arlo finantziorako ekintzak ere egingo ditugu, hauek izango dira;

Dirua irabazten dugu batez ere gauzak alokatuz, saldu beharrean, bidezkoak diren prezioak ezartzen ditugu, jendeak erraz ordaindu ahal izateko. Jendeak alokatu behar duenaren berri dugu eta horren arabera egokitzen dugu gure eskaintza. Alokairuaz gain, pertsoneri eta planetari mesede egin diezaioketen beste zerbitzu batzuk eskaintzen ditugu. Gure dirua ingurumenarentzat eta gizartearentzat onak diren proiektu eta inbertsioetan jartzen dugu. Gure balioak partekatzen dituzten enprekin elkartuko gara. Eta batez ere, gure finantzak planifikatzen ditugu gure erabakiak epe luzerako izan ahal izateko.

Errealistak gara eta badakigu arazoak sor daitezkeela, baina haien irtenbideak pentsatu ditugu:

Jende gutxi alokatu nahi du, baina jendeari gehiago esango diogu alokairuaren abantailak eta eskaintza bereziak egingo ditugu bezero berriak erakartzeko. Batzuetan webguneak akatsak edo arazo teknikoak ditu, baina horretarako, laguntza teknikoko talde bat izango dugu arazoak azkar konpontzeko. Diruarekin erronkak ustekabeko gastuengatik edo diru sarrera nahikorik ez izateagatik. Nohiz behinka erabiltzen dugun dirua aztertuko dugu, dirua irabazteko edo behar ez ditugun gastuak murrizteko modu berriak bilatuko ditugu.

Gauzak konpontzen edo birziklatzen ditugunean, batzuetan zabor asko sortzen dugu, hori saihestu nahi dugu, eta, horretarako, zabor sortzen duten gauza gutxiago erabiltzen saiatuko gara. Birziklatu eta berrerabili ahal den neurrian.

Gauzak eraman eta ekartzen ditugunean, batzuetan kutsatzen duten garraioak erabiltzen ditugu, baina hainbeste kutsatzen ez duten edo, hobeto esanda, elektrikoak erabiliko ditugu, ere bai, saiatuko gara bidai gutxiago egiten eta gauza gehiago eramaten aldi berean. Batzuetan ordenagailu eta teknologia asko

erabiltzeak energia asko erabiltzen du, baina energia aurrezten duen teknologia erabiliko dugu. Agian planetari kalterik egiten ez dioten iturrietatik lortuz energia.

Badakigu ingurumena errespetatzen ez dakien jendea badagoela, pertsona horiei planeta zaintzen irakatsi nahi diegu. Enpresak ingurumena zaintzeko zer egiten duen kontatuko diegu. Batzuetan zaila da, edo ez dakigu gauzak birziklatzea edo berrerabiltzea. Gauza zaharrak birziklatzeko programak egingo ditugu, eta birziklatzen laguntzen duten enpresekin elkarlanean arituko gara. Beti pentsatuko dugu ideia berriak, ingurugiroari laguntzen dioten teknologiak ezagutu nahi ditugu.